

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 20a

655. zenbakia

**HIRIGINTZA/** Foru Aldundiko Garapen Jasangarriko departamentuak egingo du, 600.000 mila euro inguruko aurrekontuarekin

## Bolu inguruko etxeak hornitzeko ur depositua egiten dihardute Iraburun

EDU MENDIBIL

**Bolu inguruko etxebizitzak hornitzeko helburuarekin, Foru Aldundiko Garapen Jasangarriko departamentuak ur depositua egiten dihardu Iraburu gainan. Lanak Aste Santu ingururako amaitzea da asmoa. Aurrekontua 600.000 euro ingurukoa da.**

Diputazioko Garapen Jasangarriko departamentuak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak hitzarmena sinatu zuten Iraburun ur depositua eraikitzeko. Aipatutako depositu berriak Bolu inguruko etxebizitzak hornituko ditu etorkizunean. Guztira, 2.000 pertsona inguruk jasoko dute ura depositu berrietik. Urkuluko ura Antzuolara eramateko erabiltzen den kanalizazio bera erabiliko dute ura Boluraino heldu ahal iza-

teko. Handik, esan bezala, Bolu inguruko etxetara banatuko da. Hango bizilagunek ura bonbeatzek suposatzen zuen gastua ordaindu izan dute. Ur depositua martxan jartzen denean ez dute zerbitzu hori ordaindu beharrik izango.

Esan bezala, Iraburu gaineko ur deposituko lanak Aste Santu inguruan amaitu nahi dituzte. Udaleko iturrien arabera, etorkizunean, Zabalotegi aldera eta Arana inguruko baserrietara ere handik banatuko dute ura.

### IRABURUKO, BOSGARREN DEPOSITUA

Gaur egun lau ur depositu nagusi dira herrian: Txarakoa, Albitxukoa, Osintxukoa eta Angiozarkoa. Horietan guztietan Urkuluko ura jasotzen dute. Elosu auzoan bada beste depositu bat, baina han bertako iturburutik jasotzen dute ura.



JOSETXO ARANTZABAL

Ur depositu berriak Bolu inguruko etxeak hornitzeko erabiliko da. Lanak Aste Santuaren inguruan amaituko dituzte.

## Paulo Elkorori ongietorria egingo diote domekan

E.M.

Paulo Elkorori ongietorria egingo diote domekan San Martin plazan, 19:00etan. Paulo Elkorori 32 urteko bergararra aske uztekoa zuten atzo eguna, hiru urteko kartzela zigorra bete ostean. Alemanian, Municheko espetxean, Alcalá-Mecón eta Almeriako espetxean bete du zigorra.

Gogoratuko duzuen bezala, Alemaniako Polizia Federalak 2003ko urtarrilaren 19an atxilotu zuen Elkorori, Nurembergen. 1998ko apirilaren 19a ezkerreko herrietik kanpo zeraman, Guardia Zibilak Bergaran, Antzuolan eta Gasteizen polizia operazioa egin zuenetik. Sarekada hartan hamaika lagun atxilotu zituzten, ustez Arabako komandoko kide izateagatik.

1999ko martxoan Auzitegi Nazionalak Paulo Elkorori bilatzeko eta atxilotzeko agindua



BERRIGARA

Paulo Elkorori Madrilen epaitu zutenean San Martin plazan egindako elkarretaratze bat.

eman zuen. 2003ko azaroan estraditatu zuten Alemaniatik eta 2004ko azaroan Madrilen epaitu ondoren, hiru urteko kartzela ezarri zioten.

Domekako ongietorriaren ondoren, manifestazioa izango da. Hilaren 28rako afaria iragarri dute, Artatse elkartearen. Izenematea ohiko tokietan.

## LABUR

### 1956an jaiotakoek 50. urteurrena ospatzeko afaria egingo dute bihar, zapatua

1956an jaiotakoen afaria izango da zapatuan, urtarrilaren 21ean, Zabala jatetxean. Afariaren aurretik Frontoian elkartuko dira, 19:30ean. Afalostea Iturengo Modestok alaituko du. Izenematea Zabala jatetxean (943 76 20 07) egin daiteke.

### Udaletxean NA agiria egin edo berritzeko txanda har daiteke hurrengo astean

Udalak aditzera eman duenez, nortasun agiria egin edo berritzeko aukera egongo da udaletxean datorren otsailaren 22an. Intereza duenak txanda hartzeko, urtarrilaren 23an, 24an edo 25ean Udaletxera etorri edo 943 77 91 19 telefonora deitu beharko du 9:00etatik 13:30era bitartean. Ordua aukeratzetik ez da egongo txandak jarraian emango dira-eta.

### Lotarako sakoak eta mantak jasotzeko deia egin du Bergarako Caritasek

Bergarako Caritasek aditzera eman duenez, lotarako sakoak eta mantak behar dituzte. Ekipamendua emateko moduan diren herritarrak Caritasek Sierbetan, Alkabetako lehen zenbakian duen bulegora zuzendu daitezke.

Argibidetarako 943 76 72 77 telefono zenbakira jo dezakezue. Aldez aurretik Caritasek eskerra eman nahi dizkiete kanpainan parte hartzen dutenei.



**KULTURA/** Miguel Okina margolariaren erakusketa azaroan izango da ikusgai

# Hamabi erakusketa egingo dituzte aurten Aroztegiko aretoan

E.M.

Aroztegi aretoan hamabi erakusketa egitea aurreikusten du aurten Kultura Zerbitzuak. Aroztegiko aretoa maiatzaren 12an inauguratu zuten, Pazkoen atarian, Abdon Juaristi zenaren erakusketa antologikoarekin. Ondoren, beste bi erakusketa antolatu zituzten urtea amaitu bitartean, Eduardo Arrillaga eta Toribio Jauregi argazkilarienak hain justu.

2006ko egitarauari dagokionez, Iñaki Moreno Ruiz de Eginon Hondarribiko margolariaren erakusketa izango da lehena, otsailaren 3tik martxoaren 5era. Ondo-


ren, Menchu Gal margolari irundarrak erakutsiko du bere azken lanak Aroztegin, martxoaren 17tik apirilaren 30era.

*Ikusteko musika* izenburuko eta Bergara Hiria Argazki Lehiaketa erakusketak maiatzean eta ekainean izango dira, hurrenez

hurren, eta uztailean Londresen bizi den Usoa Mendikute margolari bergararraren txanda izango da. Era berean, Bubisher elkarteak Sahararen gaineko erakusketa egingo du irailean. Jarraian, Kirol Argazki Lehiaketako lanak izango dira ikusgai Barrenkalean.

Pedro Luis Ormazabal argazkilarari angiozartarraren lanak urriaren 6tik 29ra ikusi ahal izango dira Aroztegin eta azaroan, Miguel Okina ezagunaren erakusketa egingo da, azaroaren 3tik 26ra hain zuzen. Abendurako, berriz, bi erakusketa kolektibo aurreikusi dituzte: batetik filatelia taldearena eta bestetik Beart artisten elkarteak egingo duena.

*Usoa Mendikutek eta Pedro Luis Ormazabalek euren lanak erakutsiko dituzte*



Maiatzean zabaldu zutenetik hiru erakusketa egin dituzte Aroztegi aretoan.



## Jende ugari martitzenean Murinondon, San Anton eguna ospatzeko

San Anton eguna ospatu zuten martitzenean Murinondon. Ehun bat lagun elkartu ziren San Anton ermitan egindako mezan. Leonardo Esnaola apaizak eman zuen meza, Juan Kruz Azkarateren laguntzaz. Ohikoa denez, salda eta txorizoa banatu zituzten mezaren ostean. Murinondoko Arizmendi, Basarte eta Beosin baserrietako bizilagunek gertatu zuten luntxa. 1554. urteko ermita desgertzeko zorian egon zen AP-1 autobidea proiektua martxan jarri zutenean.

## LABUR

### Bedelkar herriko dendarien elkarteak 100 euroko 30 erosketak bono zozketatu ditu

Bedelkarrek 100 euroko 30 erosketak bono zozketatu ditu. Hauek dira saritutako zenbakiak: 6.747, 8.557, 10.335, 14.694, 17.503, 20.085, 21.447, 25.511, 26.541, 27.945, 30.735, 34.832, 39.018, 40.926, 45.093, 47.980, 49.995, 50.891, 51.823, 57.489, 62.485, 63.003, 66.413, 67.734, 69.599, 73.642, 75.183, 76.620, 81.338 eta 84.708.

### EHNA tramitatzeko aukera izango da hilaren 28an, Barrenkaleko Irizar jauregian

Bai Euskal Herriari taldeak deituta, EHNA tramitatzeko aukera izango da zapatuan, urtarrilaren 28an, Irizar jauregiko sarreran, 11:30etik 13:30era.

Interesatuak erroldatze-agiria eta hiru argazki eraman eta 15 euro ordaindu beharko dituzte. Hilero azken zapatuan EHNA tramitatuko dute Irizarren.

### Internet hasiera ikastaroak KZgunean eta matrikula zabalik Helduen Eskolan

Internet hasiera ikastaroa izango da Irizar jauregiko KZgunean urtarrilaren 23tik otsailaren 3ra. Argibideak Irizar jauregiko lehen pisuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

Bestalde, Helduen Eskolan bigarren lauhilabetekorako izenematea zabalik dago. Argibideak Irizar jauregian (Barrenkalea 33) edo 943 76 44 52 telefonon.

**ARRI**  
Industri hornidura  
*Latigilloak*

Telleria 2, BERGARA.  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

**etxalar**  
kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 76 39 53

**ORMAZABAL**  
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak  
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma  
Etxeetara fisioterapia  
Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bulegoá  
Labegaraieta ind. BERGARA  
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08  
ormazabalfisioterapia@yahoo.es



ELKARRIZKETA

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR/'BONOFOTOA' SAILEKO EGILEA

# “Kalean gabiltzanean ez dugu normalen gora begiratzan; merezi du ariketa hori egiteak”

EDU MENDIBIL

S eirehun argazki inguru argitaratu ditu Miguel Angelek *Bonofoto* sailean. 1990ko abenduaren 14an BERRIGARAKO lehen alea kale-ratu zenetik Miguel Angelek ez du hutsik egin irakurleekin. Irakaslea lanbidez, argazkilaritza eta Bergarako historia dira bere zaletasunetako bi.

### Kaleratutako argazki guztiak sailkatuta dituzu?

Bai, denak dauzkat ondo gordeta, arloka sailkatuta: baserriak, etxeak, atariak, farolak, irudiak...

### Material guzti horrekin beste zerbaitek egitea pentsatu duzu?

Momentuz ez. Dena dela mereziko luke azken bi hamarkadetakoa Bergararen garapena eta aldaketa islatzen duen erakusketaren bat egitea.

### Zein irizpide jarraitu duzu irudiak atera eta galderak planteatzeko orduan? Noiz eta zelan egin duzu lan hori?

Txoko ezagunak eta ez hain ezagunak ateratzen saiatu naiz. Ez dut inoiz argazkirik edo galderarik errepikatu eta oso gutxitan atera da leku berdina. Horrek ahalegin bat eskatzen du baina Bergaran aukera asko dago. Astero gai desberdinak tartekatu izan ditut: oraingoan base-rria baldin bada, hurrengoan kaleko atariak, gertuko etxea edo urrutiko paisaia, eta abar.

Orain Donostian bizi naizenez, asteburutan ateratzen dut argazki pila. Baina arazo txiki bat dago. Azken urteotan inoiz baino azkarrago aldatzen dira txokoak eta hiru hilabete lehenago ateratako argazkiak ez du balio izaten eta berriro atera behar. Txoko bereko zenbat argazki diferente izango ote ditut!

### Baserri, auzo eta herriko beste txokoetan jende askorekin egingo zenuen topo, Labor-detaren antzera...

Hasieran harritu egiten zen

jendea farola edo atari bati argazkia ateratzen ikusten nindute-nean, baita bazterreko iturrira edo baserri arrunt batera hurbiltzerakoan, baina orain bada-kite Bonofotorako dela. Jendea bere etxe, auzo edo baserriaz harro dago eta antzematen zaie berbetan hasterakoan. Bertako historia eta pasadizo ugari kontatzen dizkirate. Benetan aberasgarria da.

### Lehiakideen deirik jaso duzu asunto hau edo beste hori argitzeko?

Ez dut inoiz kezurik izan. Txokoak proposatzeko deitu izan didate behin baino gehiagotan. Baita argazkiren bat edo beste eskatzeko ere.


### Badira astero-astero Bonofotoa zintzo-zintzo ekartzen dutenak. Ezagutzen dituzu lehiakideak, ala?

Partehartzaile asko dauka lehiaketa honek, adin guztietakoak gainera. Batzuk ezagutzen ditut. Kalean ere eskatzen didate erantzunari buruzko pistaren bat...

*“Ni bezalako kalekume batentzat, herriko auzoak aurkikuntza hutsa izan dira”*

### Anekdotaren bat?

Batek behin galdetu zidan ea zergatik ez nuen hainbat base-rriren argazkirik inoiz atera, eta nik aitortu behar izan nion txakurrak solte dituzten horietara ez naizela hurbiltzen ausartzen. Bestetik, oso polita zen sasoi batean erretiratu talde batek egiten zuena: argazkia zein, aste hartako ibilaldia hara. Lehiaketaren izenak ere badu bere zergatia: “Bonolotoa” sortu zuten garai paretsuan asmatu genuen geurea.



### Bonofotoak ateratzen gauza pilo bat ikasiko zenuen. Harritu zaituen gauzaren bat, bitxikeriaren bat?

Kaletik zehar gabiltzanean ez dugu normalen gora begiratzan. Merezi du ariketa hori egiteak, sorpresa ugari izango ditugu eta. Auzoetara ere joan beharko ginateke; ni bezalako kalekume baten-tzat, aurkikuntza hutsa izan dira. Gauza asko harritu naute baina bat botatzearen, Barrenkale eta Artekale arteko karkabak.

### Ondo baino hobeto ezagutzen duzu Bergara. Txoko bat? Alde zaharreko edozein kale kantoi.

### Bergarako altxorrik handiena?

Bere historia. Gehienetan etxe eta jauregien gorabeherak ezagutzen ditugu, baina ezer gutxi dakigu berauek eraiki edota bertan bizi izan zirenean.

### Eta hona datozen bisitariak zer ikusi beharko lukete derrigor? Auzoak.

### Azken urteotan edo azken mendean galdu da altxorrik?

Bat aipatzekotan, 1919an Bidekurutzetako 14. zenbakitik kendu zuten Zabala etxea.

### Argazki kamera laguna izan duzu lan honetan. Zenbat kamera erabili izan dituzu? Paperezko argazkiei fidela izaten jarraitzen duzu...

Hiru bat kamera erabili ditut hasi nintzenetik. Paperaren laguna izan naiz baina hasi naiz digi-tala erabiltzen.

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

**CAMACHO**  
Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35



**GAZTELU**  
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



**PILOTA/** Aspek hamabost jaialdi antolatzeko konpromisoa hartu du; Udalak 18.000 euro ordainduko dizkio trukean

# laz sinatutako hitzarmena berrituko dute Aspek eta Udalak

EDU MENDIBIL

Bergarako Udala eta Aspek akordio batera iritsi dira pilota enpresa Bergaran jaialdiak antolatzen jarraitzeko. Oraindik hitzarmena sinatu ez duten arren, urtea amaitu bitartean gutxienez hamabost jaialdi antolatzeko konpromisoa hartu du Aspek.

Iaz sinatutako hitzarmenari eutsi nahi diote Aspek eta Udalak. Horren arabera, Udalak 18.000 euro ordainduko dizkio Asperi urtea amaitu bitartean Bergaran 15 jaialdi antolatzeko. Beraz, jaialdi bakoitzeko 1.200 euro ordainduko ditu Udalak.

Aspeko iturrien arabera, akordioa egunotan sinatuko dute Victoriano Gallastegi alkateak eta Fernando Vidarte Aspe enpresako gerenteak. Hala ere, alkateak zera adierazi digu: "Oraindik hainbat puntu daude lotzeko, tabakoaren aurkako legedia beteaz zein arduratuko den ongi zehaztea esaterako".

## 2005EAN, 23 JAIALDI

Denbora luzean Bergaran profesional mailako jaialdirik gabe egon ostean, 2005eko martxoaren 4an hitzarmena sinatu zuten Aspek eta Udalak. Eibarko Asteleheneko errenta garestiegia omen



Joan zen urtean 23 jaialdi antolatu zituen Aspek Bergarako Udal Pilotalekuan.

## Eskuz binakako txapelketako partidua domekan Udal Pilotalekuan

zela eta, hango jaialdiak Bergarara ekartzeko erabakia hartu zuten Aspek arduradunek. Hasiara baten, 2005ean 15 jaialdi antolatzeko konpromisoa hartu zuten Aspek Udalararekin. Azkenean, martxoaren 13tik abenduaren 31ra bitartean 23 jaialdi antolatu zituzten.

## BINAKAKO TXAPELKETA DOMEKAN

Domekarako, hilaren 22rako, jaialdia iragarri du Aspek Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Eskuz binakako txapelketaren barruan Titin-Pascual eta Olaizola I.a-Otxandorena bikoteak izango dira aurrez aurre. ETBk eskainiko du partidua.

## LABUR

### Eski irteerak Pol-Pol elkartearen eskutik

Pol-Poleko eski sailak otsailaren 17tik 19ra bitarteko aste bukaerarako Baqueirara irteera iragarri du. Martxoan bi irteera izango dira: hilaren 3tik 5era Baqueirara eta hilaren 24tik 26ra Formigalera. Izenematea Pol-Poleko bulegoan, 943 76 48 51 telefonoan.

### Igeri elkartearen eta Lokatzaren zozketak

Bergara Igeri Elkarteak Gabonetan egindako zozketan 85 izan da saritutako zerbakia. Jose Mari Laskurain izan da saskia irabazi duena. Bestalde, Lokatzako zozketan, Amaia Marcok eskuratu du bigarren saria: bi lagunendako afaria Zumelaga jatetxean.

### Antxintxika triatloi talderako izenematea zabalik

Antxintxinka triatloi taldean parte hartu nahi dutenek (neska zein mutil) ondoko telefono zenbakira deitu dezakete: 660 52 95 16. Debagoieneko Antxintxika taldekoak denboraldi berria ari dira prestatzen.



## Iker Larrea eta Mari Karmen Garcia nagusi San Antoneko krosetan

San Antoneko krosaren 28. ekitaldia jokatu zen domekan Murinondo auzoan. Gizonezkoen proban, Iker Larrea antzuolarra izan zen irabazlea, Ricardo Velea eta Asier Aranbururen aurretik. 7,5 kilometroko ibilbidea izan zuten partaideek. Emakumezkoen proba Mari Karmen Garcia arrastearrak irabazi zuen eta infantil mailan Yokin Etxabe nagusitu zen. Jon Odriozola izan zen bigarren eta Xabi Labaka hirugarren postuan sailkatu zen. Beteranoen mailan, Zumarragako Jose Primo nagusitu zen. 30 lagun inguru aritu ziren lehian, giro ederrean.

## Aloña-Bergara, gazte mailako partidua erabakigarria bihar

E.M.

Bergara KEko gazte mailako nesken taldeak partidua erabakigarria jokatu du bihar, zapatua, Aloña Mendiren aurka, Oñatiko Zubikoa kiroldegian, 17:30ean. Bihar garaile ateratzen den taldea Gipuzkoako Federazioko Kopako finalerako sailkatuko da. Bil multzo bereiztu dituzte eta bietako

baten oñatiarrak eta bergararrak berdindurik daude. Ligaxkako azken partidua izango dute bihar eta irabazleak jokatu du finala, beste multzoan lehen postua eskuratu duen taldearen aurka.

Senior mailako taldeak eta infantil mailako biek atsedena izango dute. Gazte mailako mutilen taldeak Elgoibarren jokatu du domekan, 10:00etan.



Gazte mailako nesken eskubaloitza taldea.



**FUTBOLA/** Josu Zubiaren taldeak 0-4 irabazi zuen zapatuan Donostian eta igoera lortzeko lehia jarraitzen du

# Bergara-Segura zapatuan Agorrosinen

E.M.  
Erregional mailako Bergarako futbol taldeak Segura hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Bigarren itzulera modu ezin hobean hasi dute mahoneroek: 0-4 irabazi zioten zapatuan Amara Berriri, Donostian.

Emaizta deigarria izan arren, Josu Zubiaren taldeak ez zuen joko onik egin Donostian. Azken 10 minutuetan hiru gol egin zituen Bergarak. Jon Urteaga, Ina Dovao, Andoni eta Asier Gonzalez izan ziren golegileak.

Bergara saiklapeneko hiru garren postuan dago orain, 35 punturekin, Zumaiakoren (38) eta Urolaren (36) atzetik eta Pintxa, Mundarro (biak 32 punturekin) eta Elgoibar (27) taldeen aurretik. Gol gutxien jaso duen taldea da Bergara: jokatuak 16

partiduetan 12 gol besterik ez diote egin.

Bihar Bergarak bisitari izan duen Segura taldea saiklapeneko 11. tokian dago, 17 punturekin. Joaneko partiduan 0-4 irabazi zuen Bergarak.

## BERGARA-REALA, KADETE MAILAN

Ohorezko kadeteen mailan Bergara eta Realta aurrez aurre izango dira domekan Ipintzan, 12:00etan. Zapatuan Añorgaren aurka galdu zuen Bergarako taldeak, 1-2.

Bestalde, Agurainen 1-0 galdu eta gero, nesken senior mailako taldeak Arrasateren aurka derbia izango du domekan, 16:00etan.

Lehen gazte mailako taldeak zapatuan Eibartarrak taldearen aurka jokatu du zapatuan, 18:00etan. Azken jardunaldian 5-2 irabazi zion Bergarak Sporting Herrerari.



Erregional mailako Bergarako taldea Zumaiako liderrarengandik hiru puntura dago saiklapenean.

BERRIGARA

## Kadete mailako mutilen saskibaloit taldea, igoera lortzeko fasean

E.M.  
Kadete mailako mutilen saskibaloit taldeak Tolosaren aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 12:00etan. Lehen fasean bigarrenak sailkatu ondoren, igoera lortzea da bergararren helburua.

Biharkoa urteko lehen partidua izango du Mikel Etxeberriak zuzendutako taldeak. Esan bezala, lehen fasean bigarren tokian sailkatu ziren bergararrak. Orain igoerarako fasean 12 taldeko bi multzo egin dituzte. Multzo horietako batean lehen seiren artean sailkatzea da mahoneroen helburua. Lehen fasean erakutsitako mailari eusten badiote, onekin batera egon daitezke Etxeberriaren mutilak.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Mikel Etxeberriak zuzentzen duen kadete mailako taldea.

10:00etan eta gazte mailako mutilak Donostian, Grosen, Loiolaren aurka, 12:00etan. Senior mailako mutilen taldeari dagokio

nez, atsedena izango dute. David Urbinaren taldeak agur esan dio igoera faseari lehen fasean 7. postuan sailkatu eta gero.

## LABUR

### Txirrindulari lizentziak berritzeko aukera eskaintzen du Lokatza elkarteak

Lokatza Ziklismo Eskolak txirrindulari aditza ematen die aurtengo denboraldirako lizentziak berritzeko epea zabalik dagoela. Interesatuak Lokatzak San Martin plazan duen bulegora jo dezakete, eguenetan, 20:00etatik 21:00etara bitartean.

### Aurtengo kirol txartela berritzeko aukera dago Udaleko Kirol Zerbitzuan

2006ko kirol txartela berritzeko aukera eskaintzen du Udaleko Kirol Zerbitzuak. Azken urteotan bezala, Debagoieneko edo Bergarako kirol txartela eskuratzeko aukera izango da. Herrikoa irailaren 15era arte izango da baliagarria. Mankomunitateko txartela Debagoieneko herri guztietan erabiltzeko aukera izango da. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Santana-Agirrebeña. Pirulotarrak  
10:30: Pirulotarrak-Egurre. Agirrebeña  
16:00: Mongatxurak-Irubide. All Blacks  
17:00: Brescia-All Blacks. Mongatxurak

### DOMEKAN, BARRUAN

09:30: A Ze Flaxa-Agirrebeña. SDTNT  
10:30: SDTNT-All Blacks. Agirrebeña  
11:30: Brescia-Guri Guri. All Blacks

# GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854  
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

# BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74





## ELKARRIZKETA

JOSE LUIS GORROTXATEGI/BERTSOLARIA

## “Orain gazteek egin behar dute bertsotan ilusioa sortuko bada”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Osintxuko Izarre-Berri baserriko bi semeetan zaharrena da Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria. Gaur egun Azpeitian bizi da, eta liburu bat kaleratu berri du. *Gogoan dauzkadanak* lanak bertsotan izandako bizipenak eta bertsoak jasotzen ditu.

### Nolatan bururatu zitzaizun liburu bat kaleratzea?

Badira urte batzuk horrelako zerbait egiteko ideia buruan nuela, idazten ez dena galdu egiten da eta. 18 urterekin bertsotan hasi eta 60 urte ingurura arte bertsotan jardun dut eta batzuk grabatuta ere badaude. Beraz, pentsatu nuen nire bertsorik onenak liburu baten jartzea.

### Zer jasotzen du liburuak?

Baserriko ibilerak, bertso kontuak, politika... Bizitzako pasarteak eta bertsoak; bat-batekoak eta baita bertso jarriak ere.

**Gogoan dauzkadanak da liburuaren izenburua. Ume eta gaztetako Osintxuko garaitik zer duzu gogoan?**

Liburuan Osintxuren deskribapena egin dut, batetik, orduko jendea nolakoa zen azalduz; eta garai hartan baserri baten gertatutako pasarte bitxi bat ere kontatu dut. Bergara inguruko argazkiak ere jaso ditut.

### Osintxun bertsozaletu zinen?

Kofradietan Basarri eta Uzta-pide izaten ziren bertsotan eta ni mutikotatik entzutera joaten nintzen, gustuko nuen eta. Lagunartea, berriz, ez nuen oso bertso girokoa. Orduan Azpeitira joanda, harritu egin ninduen gazteak euren artean euskaraz entzutea; Bergaran gure ingurukoak gaztelaniaz egiten zuten.

### Bergaran jantzi zenuen estreinako txapela.

Pazkoetan izan zen. 28 urte-tik beharokoak ginen eta sekula txapelketan ibili gabeak. Sekulako poza hartu nuen. Etxekoek



BERRIGARA

*“Lehen txapela Bergaran jantzi nuen, Pazkoetan; etxeok ez ziren entzutera joan”*

bakarrik zekiten parte hartu behar nuela, baina ez ziren entzutera joan.

### Gaur egun jarduten duzu bertsotan?

Azpeitira joan nintzen bizi izatera, eta bertsotarako aukera gehiago izan dut. Orain lehen

baino gutxiago jarduten dut. Soldadutzatik etorri eta orain dela hamar urtera arte 50 plaza egiten nituen urtean; gaur egun, 15 inguru. Hil honen 28an Kursaalaren izango naiz Bertso Egunean. Gure garaia pasatua dago; orain gazteek egin behar dute bertsotan ilusioa sortuko bada.

### Bergara eta inguruko zaleei zer esango zenieke?

Bergara inguruan badirela bertsotarako leku egokiak. Basalگو auzoan zaleak dira oso, Elosu ere bertso leku ona da. Gaur egun inguru horretako bertsozaleak ez ditut askorik ezagutzen, baina seguru izango direla, eta zale-tasunari eusteko esango nieke.

## LABUR

### Otsailaren 3ra arteko epea Aratusteetako kartel lehiaketan lanak aurkezteko

Aratusteetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak bergarrendako. Kartelak kolore eta teknika librean egingo dira, formatu bertikalean; eta Aratusteak 2006, Bergara testua izango dute idatzita. 50 x 35 cm-ko kartoizko oinarrian ez ezik disketean ere aurkeztu beharko da diseinua. Kartelak Kultura Etxean aurkeztuko dira, otsailaren 3ko 13:00ak baino lehen. Lehiaketako irabazleak 300 eskuratuko ditu.

### Kubako doinuak izango dira gaur Pol-Pol tabernan, Alejandro Gutierrezen eskutik

Gaur, egubakoitza, kontzertua izango da Pol-Pol tabernan. Kubako Alejandro Gutierrezek doinu kubatarrak ekarriko ditu Bergarara. Kontzertua 23:30ean hasiko da. Habana abiarta taldean jarduten du Gutierrezek eta, besteak beste, bere *mejuneaz* gozatzeko aukera eskainiko du. Doinu kubatarrak izanik dantzara ere animatu ahal izango da jendea.

## Fly Shit musika taldeak bigarren diskoa kaleratu du

I.A.

Bergarako Fly Shit taldeak *Bizitza, baina nola bizi?* bigarren lana kaleratu du. Diskoa herriko zenbait tabernatan eros daiteke sei euroren truke.

Denbora luzean jardun dute hamar kantu jasotzen dituen lan hau gertatzen.

Grabaketak hainbat tokitan egin dituzte, besteak beste, Eibar-ko Legarre estudioetan, Oñatiko Gaztelekuan eta Bergarako gaztetxean; eta Xabi Labaien izan dute lagun grabazio lanetan.

Edizioan, berriz, Isiltasuna Apurtzen egitasmoaren eta Gra-

catels recordsen laguntza aipatu dituzte taldekoek.

### TALDEKIDE BERRIAK

Gaur egun lau lagunek osatzen dute taldea: *Dubi* baterian, *Osto* baxuan, Ander gitarran eta Igor ahotsa jartzen.

Diskoan, ordea, bateria Heloyk jo zuen eta Unai Azkaratek ere hartu zuen parte.

Diskoa aurkezteko kontzertuak emateko asmoa dute, baina oraindik datak zehazteke daude. Bergarako gaztetxean otsailaren hasieran joko dute seguru aski eta Lemoan ere egingo dute kontzerturen bat.



GOENBARA

*Bizitza, baina nola bizi?* da Fly Shit taldearen lan berriaren izenburua.

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043




**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Mujika**  
gozotegia



Bizkotxoak  
Errelenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34



MINGAINARITIRAKA



## Eneritz Urbietta

MAPFRE ASEGURUETAKOIA ETA JARDUN ELKARTEKOA

Biak egiten ditu Eneritzek: Mapfre aseguru etxean dihardu lanean, baina Jardun euskara elkartearen diru kontuez ere arduratzen da. Eta baikor azaldu zaigu euskararen etorkizunaren gainean galdetuta.

**Euskarak aseguruaren baten beharra badauka, ezta?**

Bai, egia esan, ziurtatu beharra dauka. Dena dela, nahiko ondo ikusten dut euskararen etorkizuna; umeez euskaraz egiten dute eta etorkinen aldetik ere euskara ikasteko gogoia ikusten dut.

**Aseguruaren mundutik urrun samar dago euskara, ezta?**

Hala da, oso gutxi erabiltzen da; guk ahal dugun guztia egiten dugu. Poliki-poliki geroago eta gehiago erabiltzen da.

**Zein beste arlotan ikusten duzu egoera kezkaragarrian gure hizkuntza?**

Enpresa munduan, beharbada.

**Bergaran zer falta dugu?**

Zinema areto bat; kafe antzoki bat ere oso ondo etorriko litzai-guke herrian.

**Eta herriko gauza onena?**

Musika, kultura eta euskal kulturarenganako interes eta zaletasun handia dagoela herritarren aldetik. Herri gutxi daude, adibidez, orkestra sinfonikoa dutenik.

**Eta zuk baduzu orkestra horrekin zerikusirik, ezta?**

Bai, biolina jotzen dut.

**Ze musika mota gustatzen zaizu?**

Denetik; lehengoan, esaterako, Benito Lertxundiren kontzertuan egon nintzen. Ken 7 ere gustatzen zait; baita musika klasikoa ere.

**Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Zinemara joatea; mendira ere asko joaten naiz.

**Mendi bat?**

Urbia.

**Dantzari familiakoa zara, baina zeu ez zara dantzaria.**

Txikitik neu ere ibili nintzen, baina, biolinarekin hasi nintzen eta ezin denera iritsi.

**Zure burua zela definituko zenuke?**

Langilea naiz, konstantea eta alaia.

**Urte berriarekin proposamenik egin diozu zeure buruari?**

Ez; baina, dietarekin astelehenero hasteko asmoa izaten dut.

**Amets bat?**

Osasuna izatea eta etxea ordaindu ahal izateko loteria tokatzea.

AINZANE IRIZAR

## KANPOTARRAK BERGARAN

### ALEJANDRO CAMPOS

37 URTE / MEXIKARRA / ORAIN DELA URTE ETA ERDI ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

## “Hemengo jendea oso aktiboa da, eta hori ikustea pozgarria da niretzat”

EDU MENDIBIL

**A**lejandro Camposek urte eta erdi darama Bergaran bizitzen. Bere jaioterrian, Mexikon, Idurre oiar-tzuarra ezagutu ondoren etorri zen Euskal Herrira, Gasteizera lehenbizi eta Bergarara ondoren. Hona etorri aurretik, besteak beste, Mexiko Hirian edo New Yorken bizi izandakoa da.

Idurreren lanagatik etorri ziren Bergarara. Alejandrok gustuko du gure herria: “Gasteizen bi urte egin nituen eta ez nuen horrenbeste harremanik izan euskaldun jendearekin. Beste giro bat ezagutu dut Bergaran eta eroso sentitu naiz hemen...Klimatologikoki zein sozialki hotzagoa iruditu zitzaidan Gasteiz”. Alejandrok aitortzen duenez, emaztea euskalduna izatea erabat lagungarria gertatu zait Euskal Herrira etorri zenetik: “Gustuko ditut hemengo ohiturak eta jendearen izaera. Euskara ikasten ere saiatu naiz... Orokorrean jendea oso aktiboa da hemen, mendi ibilaldiak edo antolatzeako orduan. Pozgarria da hori. Han, Mexikon, hiri handietan bakarrik antzematen da hori... Gaztetxea martxan jartzeko edo abesbatza bat sortzeko hemen dagoen ekimena miresten dut. Herri txikia izan arren, herri bizia da Bergara eta gustatzen zait horrenbeste ume kalean jolasean ikustea. Bestetik, pena daukat zinema aretoa berririo zabaltzeko ahallegina ez delako egiten”.

### MEXIKOKO DORTOKAK IKERTZEN

Joan zen urtean informatikari lanetan ibili zen Alejandro Arrasaten. Urtarrilean amaitu zitzaion kontratua eta orain, Oiar-tzun eta Hondarribiko beste bi lagunekin batera, itsas dortokekin lan egiteko proiektua jarri du abian: “Veracruz, Mexikoko Golkoan bost dortoka espezie daude eta haien habeserako gobernuz kanpoko erakunde bat sortu dugu, Amona-Ayotzi izenekoa. Nahuatl azteken hizkun-


*“Gustuko ditut hemengo ohiturak eta jendearen izaera; eroso sentitu naiz hemen”*

tzan dortoka esan nahi du ayotzi hitzak. Esan bezala, dortoka horien jarraipena egiteko interesa dutenendako 12 eguneko egonaldiak antolatu nahi ditugu Veracruzetik 75 bat kilometro iparraldera, Lechuguillas izeneko herrian hain zuzen. Mexikoko Ingurugiro Idazkaritzarekin elkarlanean arituko gara”. Gaia-rekin interesatutakoek honako

helbidera jo dezakete argibide eske: [www.amoayo.org](http://www.amoayo.org).

Biologia eta argazkilaritza dira Alejandroren zaletasunetako bi. Proiektu berri hori dela eta, otsailan Mexikora itzuliko da Alejandro: “Dortoken lan hori apiriletik irailera bitartean egingo dugu, sasoi horretan egiten dutelako habia dortokek. Ez dakit noiz arte geratuko naizen Veracruzen...”

Azken bi urte eta erdian ez da Mexikora joan eta badauka gogoia hara joateko: “Azken baten, familiaren hutsunea nabaritzen dut gehien. Dena dela, amaren bisita izan genuen ekainean eta liluraturuta joan zen hemen ikusitakoarekin... Lagun batekin etorri zen eta primeran moldatu ziren biak. Ama lasai joan zen Euskal Herria esaten dutena baino baketsuagoa dela frogatu eta gero”.



# BERGARA

## Margoak



**Kalitatea eta zerbitzua.**

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxe: 943 76 97 32. [bergara.margoak@terra.es](mailto:bergara.margoak@terra.es)

# OGIZUN


koop. elk.  
**okindegia**



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

Bi atari hauek  
kale berean  
daude. Non?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

VICENTA VAZQUEZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela.  
Zorionak, Vicenta!  
Galderaren erantzün zuzena: **San Martin Agirre.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Scottex komuneko papera

4 erroiluko paketea

1€

167 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

ELGETA  
Kintoen  
bazkaria  
lagun giroan



Gaur egun biziko balira 103 urte izango lituzkete argazkiko gizonezko hauek. Orain dela 45 urte inguru atera zuten erretratua, kinto bazkaria egin zuten egunean; orduan oso ohikoa izaten zen urtean behin bazkaria egitea. Giro onean ospatu zuten, Isaak soinu-jolea izan baitzuten lagun.

Plazan atera zuten argazkia, udaletxearen parean. Garai hartan plazako etxeak artean eraiki gabe zeuden; erretratuaren ezkerrean etxeak agertuko lirateke argazkia orain aterako bagenu.

Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak:

Goian, ezkerretik eskumara: Patxi Askasibar, Jose Arantzeta, Carlos Sagastigutxia, Jose Irazabal, Patxi Alberdi eta Rufino Ruiz de Egino.

Behean: Ignacio Arantzabal, Antonio Arantzabal, Antonio Agirreazaldegia, Anton Porru, Patxi Zabala eta Isaac Gallastegi.

Argazkia: Dionisia Arantzeta

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 20  
CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74
- ZAPATUA, 21  
ZABALA. Barrenkalea 25. . . . . 943 76 16 87
- DOMEKA, 22  
ZABALA. Barrenkalea 25. . . . . 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 23  
GUALLAR. San Antonio 5 . . . . . 943 76 11 05
- MARTITZENA, 24  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . . . 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 25  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . . . 943 76 12 15
- EGUENA, 26  
CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK
- Anbulatorioa (txanda) . . . . . 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa. . . . . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa. . . . . 943 76 62 46
- Ertzaintza . . . . . 943 53 47 20
- Asepeyo . . . . . 943 76 16 43
- Pakea . . . . . 943 76 13 49
- Angiozarko medikua . . . . . 943 78 90 27
- Antzuolako medikua . . . . . 943 76 62 23
- Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak . . . . . 943 76 51 06

GARRIAOK

- Taxiak . . . . . 943 76 19 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea . . . . . 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea . . . . . 943 76 62 46
- Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32
- Igerilekuak. . . . . 943 76 20 51
- Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58
- Liburutegia . . . . . 943 77 91 62
- Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41
- Mizpiruialde egoitza . . . . . 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia . . . . . 943 76 14 92
- Erregistroa . . . . . 943 76 13 15
- Jardun . . . . . 943 76 36 61
- Postetxea . . . . . 943 76 26 85
- Bedelkar . . . . . 943 76 04 68
- Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia . . . . . 943 76 44 53
- Bergarako notariotza . . . . . 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

**San Lorenzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,  
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,  
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20  
eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,  
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50  
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),  
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00  
eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.



**BERBENTZIA EZPADA/ Zinema aretoa aldarrikatzen herri plataforma bat ari da. Zer iruditzen?**



**ROBERTO ATORRASAGASTI**

iruditzen zait plataformaren sortzea, Bergaran ez dago ezer ez, eta penatzen da. Lehen egin zuten proposamena Irala zinema aretoa kultura areto bihurtzeko, baina Udalak ez zuen onartu eraman.



**ANA-SANZ**

Ongi iruditzen zait, jendea mugitu ezean ez baitago ezer lortzerik. Herritarrek, kulturarik eman ezean, kanpora jotzen dute. Lehen ere egongo zen aretoa izanda kanpora joaten zenik, baina orain are gehiago.



**M. CARMEN RUIZ DE EGINU**

Ongi iruditzen zait. Ni neu zinemara asko joaten nintzen eta orain filmak ikusteko kanpora joan behar dut. Plataformaren bidez eskatu egingo dugu aretoa eta zerbait lortzen badugu ongi baino hobeto.



**JOSE ANGEL GOMEZ**

Plataformaren ideia ongi dago. Zinema aretoaren beharra dugu eta indarra eginez gero lortzeko bidea izan daiteke. Gaur egun, gazte asko kanpora joaten da zinemara, Gasteizera gehienak.



**MILA LETE**

Beste bide batzuk urratu eta gero ez bada ezer lortu, ongi iruditzen zait plataformaren bidea probatzea. Ni ez naiz zinema-zalea, baina zale asko dago, eta herri baten beharrezkoa da zinema areto bat.



**HECTOR RAMUDO**

Ez dakit zerbait lortuko den plataformarekin, baina zinemaren beharra ikusten dut. Gaur egun sarritan etxean ikusten ditugu filma, baina besteak beste umeendako irtenbidea izan daiteke zinema areto bat.

**ALOKATATXISTUAK**



**ALOKATATXISTUAK ZEBRABIDEA** Irakurle batek deitu digu esanez, Barrenlearen amaieran dagoen zebraidea autoek ez dutela errespetatzen. "Auto gidariek ez dute begiratzen ea oinezkorik badagoen pasarela, eta arriskutsua izan daiteke. Gainera, bertako semaforoak ere ez du beti ongi funtzionatzen", esan digu. /I.A.

**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

"Pelaje"



Ikusi dozu klaran semiak zelako pelajia daukan?

JON IRAEGI

**BESTEKE SANA**

**Bergaran Bubisher egoteak ahalbidetuk egingo du umeak etxean hartu nahi dituzten familiek gestioak Bergaran bertan egin ahal izatea. Orain arte beste herri batzuetako elkarrekin bidez ekarri behar izan ditugu umeak Bergarara hemen elkarerik ez zegoelako. Elkarrekin dagoen Udalarekin batera eta Frente Polisarioaren bitartez ekartzen dituzte umeak, eta guk ere hala jardun behar dugu aurten. Lehen aldiz izango da guretzat eta jarraitu behar dugu urrats guztiak zein diren zehatz jakin behar dugu lehenik eta behin. Arratsaten ere badago sahararren alde egiten duen elkarte bat eta haiek in jarriko gara harremanetan".**

**ELSA MANSO/ Bubisher elkarteko lehendakaria 'Asteleheneko Goienerria'/06-01-16**

**BERAIEK DIÑO/ Jose Angel Mikeo**



*Irudiaren indarra*

**E**vo Morales eta bere jertse marraduna izan zaizkit azken aste hauetako pozgarri, Evo indioarendako, Evo kokaleroarendako, Evo ezjakinarendako hainbaten (esaterako, ditxosozko COPEkoen) adar jotzearen aurrean, urrinetik ikusteko moduko jertsearekin azaldu baitzaie, paper zorrorik eta maletarik barik, eskuak libre eta irribarrea ezpainetan.

Mario Vargas Llosa, peruano *criollo*-ak, bere handikeriatik, jertsearen indarra-rekin oharturik, New Yorkeko irudi aholkulariaren baten ideiatzat hartu du, Boliviako altiplanoan halakorik egiteko ausardiarik ezin aitortuz. Ileanen itxura dela eta *estilo fraile campanero* deitzen dio, bere "txahalak miazitutako buruari" kasu egin barik nonbait.

Irudiak indarra du, batez ere norbera den bezalakoa azaltzen denean eta besteen moztu jantziak agerian uzten dituenean. Behar bada

hemendik gutxira zeharo aldatuta ikusiko dugu Evo, okasiorako jantzita, baina hasiera ona izan du. Eta asteko beste irudia, seguru aski bere izaerarekin bat datorrena, Rouco Varela Kardinalarena da. *Katapunen urteetako* jantzi eta bataio

erritual pribatuekin. Nik ulertuta neukanez, Vatikanoko II Kontzilioa egin ostean, kristau berriak kristau komunitateak onartzen ditu bere baitan eta horrela bataioa mezaren barruan egiten da.

Baina, Leonor koitaduari, aparteko kristau taldea tokatu zaio nonbait: talde honetan agintari izan behar da, ponteak norberak erabiltzeko bakarrik, ura Jordanekoa, apaiza Kardinala, Eliza etxeko saloia, aitona errege, aita printze, umea Doña, Jaungoikoa... *Leonor, ¡por Todos los Santos!*

Irudiak irudi, marradun jertsearekin bataiatzerik balego zerbait aldatu denaren "irudi" litzateke.

**"Irudiak indarra du, norbera den bezalakoa azaldu eta besteen moztu agerian uzten denean"**

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Egubakoitza, 13	<b>-1 °C</b>		
<b>MAXIMOA</b> Astelehena, 16	<b>12 °C</b>		
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>12,8 L</b>		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	12 °C	-1 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 12	11 °C	-1 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 13	10 °C	-1 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 14	11 °C	1 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 15	12 °C	-1 °C	0,8 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 16	12 °C	4 °C	- l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 17	11 °C	2 °C	12,5 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**Berrigara**

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldegi  
Oihana Elortza  
**MAKETAZIOA**  
Maitena Arana

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberebizbar

**LEGE-GORDAILUA**  
55-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
8.680 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERRIGARA  
Tel.: 943 25 05 02  
Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: berrigara@gotiena.com



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 20a / 272. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Iraunkortasunerako ekintza plana onartu du udalbatzarrak

AINTZANE IRIZAR

Tokiko Agenda 21 lantaldeak etorkizunerako helburuak zehaztu eta helburu horiek lortzeko ekintza plana diseinatu du. Urtarrileko osoko bilkuran, berriz, ekintza plan hori onartu egin dute. Baita Udalsarea 21eko partaide izatea ere.

Tokiko Agenda 21 lantaldearen eskutik bi proposamen jaso zituen udalbatzarrak aurreko egubakoitzeko osoko bilkuran; biak onartu zituzten hantxe.

Batetik, azkeneko hilabeteotan egindako lanaren ondorioz landutako Ekintza Plana aurkeztu zuten, Udalak onartu zezan.

Lau puntu nagusitan banatuta, 40 bat puntu edo ekintza onartu zituzten. Lau puntu horiek honako hauek ziren: herriko garapen soziala sustatzea eta herri bizitza berpiztea; hirigintza orekatu baten alde apustu egitea iraunkortasun irizpideak jarraituz; baliabide ekonomikoen kudeaketa iraunkorra egitea eta ingurune naturala babestu eta baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra egitea.

### UDALSAREA 21

Bestetik, udalbatzarrak aurreko egubakoitzeko osoko bilkuran onartu zuen Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean sartzea. Gipuzkoa, Araba



Tokiko Agenda 21en ekintza plana eta Udala Udalsare 21 barruan sartzea erabaki zuen Udalak.

**Tokiko Agenda 21eko lantaldeak landutako ekintza plana onartu du Udalak**

eta Bizkaiko 66 udalerririk, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, foru aldundiek eta EUDELe

**EAEko 66 udalerrirekin batera, Udalsarea 21 barruan sartu da Udala**

(Euskal Udalen Elkarteak) osatzen dute Udalsarea 21. Udalsarea 21en helburua da koordinazio eta lankidetzaren foroa

**Lau puntu nagusitan banatuta, 40 bat ekintza plan landu ditu lantaldeak**

izatea, ekintza planak bultzatzeko eta Udalsarea 21eko udalerrietako Tokiko Agenda 21 dinamizatze.

### GAZTETXEA

## Altzariak batzen dihardute eta laster zabalduko dute berriro gaztetxea

AINTZANE IRIZAR

iazko apiriletik itxita egon eta gero, aste batzuk barru zabalduko ditu berriro ateak gaztetxeak. Aurrerantzean, lagun talde bat arduratuko da lokalaren jardunaz.

Gazteen euren arteko konpondu ezinak zirela eta, iazko apirilean gaztetxea ixtea erabaki zuen gazte asanbladak. Hainbat koadrilak ez zituzten euren ardurak eta egin beharrak betetzen.

Harrezkero, lokala itxita egon den arren, batzar ugari egin dituz-

te, udatik hona, batez ere. Estatutuak ere onartu dituzte.

Lehen, koadrila bakoitzak bazuen bere giltza, baita hainbat ardura ere. Funtzionatzeko era horrek huts egin zuenez, aurrerantzean, talde bat arduratuko da lokalaren jardunaz.

Otsailean gaztetxea zabaltzea espero dute; orain, mahaiak, aulkiak eta horrelakoak batzen dihardute; gaurko, egubakoitza, deialdia egin diete herritarrei, material hori laga dezaten traste zaharrak lagatzen diren tokietan, 19:00etatik 20:00etara.

### LABUR

#### Bularreko minbiziaren gaineko berbaldia

Katxalin elkarteak eta Antzuolako Udalak antolatuta, bularreko minbiziaren gaineko berbaldia izango dugu datorren asteko eguaztenean, urtarrilak 25, Olanen etxean, 18:30ean. Donostiako Onkologia institutuko zuzendari Lourdes Ariztizurrik egingo du berbaldia.

#### Andoni Azkargorta Gertu Gaeren udal hautetsi berria

Gertu Gae plataformako Mireia Unamunok bere kargua laga behar izan du eta Andoni Azkargortak hartu du bere lekua. Plataforma legez kanporatu zuten arren, lanean jarraitzen dute hautetsiek, bai batzordetan parte hartuz, baita plenotan ere, nahiz eta euren botoak ez izan balhorik.

#### Dantza eta ardo ikastaroak otsailean hasita

Otsailaren 2an hasiko da ardo dastatze ikastaroa, eta doan izango da. Eguenero, 18:30etik 21:00etara izango da, martxoaren 23ra arte. Urtarrilaren 27ra arte, egubakoitza, dago izena emateko aukera.

Otsailaren 11n hasita, berriz, hilabeteko bigarren zapatuan, dantza ikastaroa izango da, 16:30etik 19:00etara. Otsailaren 3ra arte dago izena emateko aukera.

#### Kirmen Uriberen berbaldia datorren eguenean, hilak 26

Udal Liburutegiak antolatuta Kirmen Uribe idazlearen berbaldia eskainiko digu datorren asteko eguenean, hilak 26. Bere idazle lanaz jarduneko du Kirmenek. Olanen etxean izango da saioa 19.00etan.



MUSIKA

# Txistularien, abesbatzaren eta metal boskotearen kontzertua

AINTZANE IRIZAR

Etzi, domeka, urtarrilean urtero bezala, kontzertu interesgarria eskainiko digute Antzuolako eta Bergarako musikariek, udaletxean, meza ondoren. Txistulari taldeak, Antzuolako Abesbatzak eta Bergarako metal boskoteak parte hartuko dute.

Goizeko mezaren ondoren, 12:30 aldera, izango da domekako kontzertua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Txistulari taldeko zuzendari Bittor Arbuluk kontzertuan entzun ahal izango ditugun doinuen berri eman digu. Eskumako taulan duzue egitaraua.

Azkeneko hiru piezak Antzuolako abesbatzarekin batera eskainiko dizkigute txistulariek eta Bergarako metal boskoteko kideek.

Aipatzekoa da hirugarren doina, *Koadrila eta mazurka*, iparraldeko doina dela eta Txomin Agirregomezkortak moldatuta dagoela. Azkenekoa, berriz, *Baldorba*, aski ezaguna Benito Lertxundik abesten duelako, Ismael Yaguek egindako moldaketekin eskainiko digutela.



Sekulako arrakasta izaten du kontzertuak eta aretoa lepo bete ohi da.

GOIENKARIA

## Egitaraua

- 'Hau dek hau' (Kalejira) ..... Jose Azarola
- 'Gutxi baina nerea' (Zortzikoa) .. Isidro Ansorena
- 'Koadrila eta mazurka' ..... Mold.: Agirregomezkorta
- 'Fandangilloa eta porrusalda' .... Fernando Ansorena
- 'Iparragirrerren lau kanta' ..... T. Agirregomezkorta
- 'San Sebastian' (Boleroa) ..... Pedro Ugalde
- 'Baldorba' ..... Benito Lertxundi

GAZTEGUNEA

# Txatxilipurdik kudeatuko du Gaztegunea aurrerantzean

AINTZANE IRIZAR

Aurreko asteko osoko bilkuran, udalbatzarrak erabaki zuten Gaztegunea kudeatzeko ardura Txatxilipurdi elkarteari esleitzea. Orain arte Udalak berak kontratatutako langileak kontratatu dira Gazteguneari. Errekalde auzoan dago lokala eta 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago.

Gaztegunek 2004ko maiatzean zabaldu zituen ateak. Harrezkerro, 12 eta 14 urte bitarteko herriko gaztetxo askori eman die aisialdia betetzeko aukera. Orain arte, hiru begiralek jardun dute, Udalak kontratatuta. Baina, behin baino gehiagotan gertatu da begiraleek euren lanpostua lagatzea, eta azkenean, Udalak erabaki zuen onena izango zela kudeaketa enpresa edo elkarte bati esle-

tzea. Txatxilipurdi elkarteak izan da bere proposamena aurkeztu duen bakarra.

Urteko 27.024 euroko aurrekontua izango du Txatxilipurdi- ren zerbitzuak. Aurrekontu horri aurre egin ahal izateko, gurasoekin egindako batzar baten azaldu zitzaizen Gazteguneko erabiltzaileei kuota kobratzen hasteko aukera. Horrela, urteko 40 euroko kuota kobratzen hasi dira.

KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Ez da partidurik egongo Eztalan. Nagusiek atsedena dute eta gazteek Deban jokatzekoak dira.

#### PILOTA

Udaberri Saria txapelketa hasiko dute asteburuan gazte mailakoek; Zumaian jokatu dute lehen partidua.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Antzuola 1 Urki 1 (Erregionalak)  
Euskalduna 6 Antzuola 1 (Gazteak)

#### PILOTA

Ez dute partidurik izan. Oraingo asteburuan hasiko dute Udaberri Saria.

LABUR

## Eusko Ikaskuntza erakundeko bazkide ongile izatea erabaki du udalbatzarrak

Aurrerantzean herrian egin daitezkeen proiektuetan "laguntza teknikoa jasotzeko aukera izango duelako Udalak eta beste herrietan egiten denaren erreferentzia egokia izan daitekeelako", Eusko Ikaskuntzaren bazkide ongile izatea onartu du udalbatzarrak.

Urtero 600 euroko kuota ordaindu beharko du Udalak. Trukean, argitalpen bildumaren 410 ale jasoko ditu; argitaratzen dituen liburu berrien ale bana ere emango dizkio Udalarari; bestalde, ikastaro eta jardunaldietan, %25eko deskontua izango du Udalak.

## Udaletxeko langileek lan baldintzen gaineko akordioa sinatu dute EUDELekin

2007. urtera arteko akordioa sinatu berri dute udaletxeetako langileen ordezkari sindikalek EUDELekin. Soldataren igoera adostu dute, batetik. Bestalde, urteko lan ordu kopuruari dagokionez ere, akordio batera iritsi dira: 1.592 orduko egutegia izango dute. Azpi-kontratazioaren gaineko puntu bat ere adostu dute. Beste hainbat hobekuntza ere jasotzen ditu akordioak.

## Lider bukatu dute erregionalek lehen fasea eta igoera fasea jokatzeari ekingo diote

Hasiera ezin hobea eman zioten erregional mailako mutilek denboraldiari eta euren multzoko lehen postuan bukatu dute lehenengo fasea. Gauzak horrela, igoera faserako sailkatzea lortu dute, Aretxabaleta, Ikasberri eta Eibartarrak taldeekin batera. Maila igotzeko aukera dute, hortaz, antzuolarrek. Gainerako multzoez ez dute lehen fasea oraindik bukatu, hortaz, oraindik itxaron egin beharko dute antzuolarrek fase berriari ekiteko. Datorren asteburuan jai izango dute.

## Udaberri Saria jokatzeko hasiko dira oraingo asteburuan Olaldeko pilotariak

Olalde elkarteko gazte mailako pilotariak eta paletazko mailakoek jokatu dute aurten Udaberri Saria. Nagusiek ez dute txapelketa horretan parte hartuko. Gazte mailan, honako pilotariak jardungo dute: Aitor Mendizabalek, Andoni Azkaratek eta Xabin Murua-mendiarezek, azkeneko honek ordezkari moduan. Paletaz, berriz, honakoek: Iker Mansok, Gotzon Zabalok eta Gorka Iturbek. Oraingo asteburuan hasiko dute txapelketa gazteek, Zumaian. Paletazko bikoteak, berriz, atsedena izango du oraingo asteburuan.

# Harizki

SUKALDEKO ALTZARIAK

**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4; behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**zabalo**

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. 943 76 60 89  
Faxa: 943 76 60 14

**ZAHAR BERRITZEAK:**  
Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teilatuak

**Eta orain....  
GREMIOEN  
KOORDINAZIOA**



# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2006ko urtarrilaren 20a / 253. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## EAJ-EAk 3.619.025 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du Udalean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Osoko bilkura egingo dute datorren urtarrilaren 31n udaletxean. Besteak beste, 2006ko udal aurrekontua izango da berbetarako gai. EAJ-EAk 3.619.025 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du. Inbertsiorik handienak hirigintzan egingo dira.

EAJ-EA koalizioak 3.619.025,35 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du Udalean 2006. urterako. Urtarrilaren 31n egingo duten osoko bilkurak erabakiko da proposamen hori onartzen duten ala ez.

Aurreko bi urteetako aurrekontuekin alderatuz behera egin du aurtengoak. 2004koa 6.808.443 eurokoa izan zen eta iazkoa 5.443.502 eurokoa. Patxi Basauri alkateak esan digunez, "aurreko urteetan inbertsio handiak egin dira, Pagatzako lanak, esaterako, eta horrek ekarri du aurrekontuak ere altuagoak izatea".

### INBERTSIO NAGUSIAK

Aurten ere, udal aurrekontuko diru kopuru handienak inbertsioetara bideratuko dituztela jakinarazi digu alkateak: guztira, 2.180.678,73 euro.

### Inbertsioak

Baserritarrak	85.082,66 €
Kultura	28.060 €
Hirigintza	1.457.559,68 €
Zerbitzuak	94.332,81 €
Hezkuntza	16.993,38 €
Kirola	498.650 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.180.678,73 €</b>

Inbertsio handien hirigintzan egingo dira aurten: 1.457.559,68 euro, hain zuzen ere. Salbador kalearen amaieran, lantegi zaharrak dauden lekuan, etxeak egiteko asmoa dago, eta horren proiektua egiteko 13.200 euro aurreikusi dituzte; Torrealdeko urbanizazio lanetarako, berriz, 1.327.934,91 euro. Irisgarritasun

lanetarako 30.993,28 euro izango dira. Lan horien artean daude Anai etxerantz joateko eskailerak konpontzea.

Baserritarren batzordetik inbertsioetara bideratuko den kopuru altuena Sesto Gain eta Sagastitxu baserrietarako bideak konpontzeko izango da; 44.060 euro.

Hezkuntzako 15.877,93 euro eskolarako izango dira. Kirol batzordeko kopuru handiena, berriz, pilotalekua berritzeko erabiliko dute: 490.000 euro.

Kultura batzorderako izango da inbertsioetako diru kopuru txikiena. Espaloirako aulkiak eta gortinak erosteko izango dira batzorde honetako inbertsio handienak: 20.060 euro.

*Hirigintza lanetan egingo ditu Udalak 2006an inbertsiorik handienak*



Torrealdeko urbanizazio lanetan 1.327.935 euro inbertituko dituzte.

## HERRITARREN HITZA / Eduardo Zubiaurre • Enpresaburua

### Loteria vs. lana

A benduaren 22a, Madrileko loteria nazionalaren zozketa eguna. Euskadi Irratiaren iluntzeko tertulian solaskide *progreenak* bat-batean esandakoa: "... nire iritziz, loteria da aberasteko egon daitekeen modu onargarri bakarra. Estatuak antolatutakoa, herritarren diruak batu eta banatzen dituena, esplotazio edo deliturik egin gabe aberasteko modua...".

Jakina, inor esplotatzea edo delitugile izatea ezin da inola ere onartu. Baina enpresa, denda, negozio edo edozein proiektu profesional daukan guztia esplotatzaile eta delinkuentzat har-

tzea gezurra eta iraingarria izateaz gain, gizarte ikuspegitik guztiz kaltegarria dela deritzot.

"Bakoitzak bere ahalmenen arabera jardun eta bakoitzari bere beharren neurrian eman". Ez dago hau baino giza proposamen iraultzaileagorik. Hala ere, ez da gero batere erraza gizartearen aplikatzea. Zein da bakoitzaren ahalmena eta nola lortu norbanako bakoitzak ahal



**"Nork zehaztu behar ditu bakoitzaren beharrak?"**

Justizia, askatasuna, demokrazia... omen dira giza-

duen guztia egitea? Nork zehaztu behar ditu bakoitzaren beharrak? Bi giza erakunde bakarrik ezagutzen ditut era iraunkorrean filosofia honen arabera jardun izan dutenak: familia eta eliza. Eta bien oinarriak maitasuna eta absolutismoa, gizakien artean zabaltzeak ez dirudi batere erraza.

kiok elkarrekin bizi eta garatzeko aurkitu ditugun maitasunaren suzudaneoak. Aukeran nahiago dut Suediako ekonomia merkatu ereduak sortzen duen giza aberastasuna, Kubako Estatuak ongi kontrolatutako miseria komuna baino.

Zorionak ba loteriako saria egokitu zaien guztiei. Baina herritar bezala, mila esker lanean eta ahaleginean bere proiektuak bultzatzeko ausardia eta kemena duten guztiei, nahiz eta sekula ez lortu loteria saridunek adina diru. Nik behintzat ez dut sinesten ongizatea lortzeko beste moduetan.

## LABUR

### Lau t'erdikoan izena emateko epea zabalik

Ozkarbi pilota elkarrekin Lau t'erdiko Txapelketan izena emateko epea zabaldu du, eta pilotariak otsailaren 3ra arte izango dute horretarako aukera. Elgetakoa txapelketa entzutetsua izanik pilotari kopurua mugatu behar izaten dute antolatzaileek. Maila eta elkarte bakoitzeko pilotari bakarra onartuko dute. Kadete mailan 1990 eta 1991n jaiotakoek hartuko dute parte eta 23 urtez azpikoetan 1983an eta ondoren jaiotakoek.



ADALA

# Alberdik eta Gallastegik hartuko dute hainbat batzorderen ardura

tuko dute Baserritarren batzordearen eta Euskara eta Gaztedia azpibatzerdeen ardura. Batzorde hauen jarraipena egitea dagokie, beraz. Edozelan ere, ez dute osoko bilkuretan bozkatzeko aukerarik izango.


Batzorde-buruak, ordea, orain arte bezala Patxi Basauri eta Izaskun Larrea izango dira.

**Patxi Basaurik eta Izaskun Larreak jarraituko dute batzorde-buru izaten**

## BOTO ESKUBIDEA ALDARRIKATUZ

Elgeta Auzolanian plataformakoei argi utzi dute euren "zinegotziaren legezketasuna behin eta berriro aldarrikatuko" dutela. Euren esanetan, "eguneroko elkarlanak erakutsiko digu pauso honek merezi duen edo ez, eta alde biek baloratu beharko ditugu emaitzak. Gure eskubideen onarpenaren bidean aurrerapauso bat delakoan gaude, beste pauso batzuekin lotuz konponbiderantz hurbilduko gaituena".

Aralarrek uste du EAJ-EAK erabaki-gaitasuna aitortu behar diola plataformari: "Zoriondu gura dugu EAJ-EA, Auzolanian aintzat hartzen hasi delako. Hala ere, ardurak eman dizkio, baina ez du boto-aukerarik izango".




Auzolanianek ez du boto eskubiderik izango osoko bilkuretan.

SIALDIA

# Zabalik dago bainuetxe programan izena emateko epea

insersok bainuetxe programa berritu du abian. Interesa duten pentsiodunek udaletxera joan beharko dute, gizarte laguntzailearengana, astelehen edo bigarren goizetan, informazioa jasotzeko eta izena ematera. Parte hartzen dutenek 12 eguneko epea izango dute.



Programan parte hartzen dutenak 12 eguneko epea izango dute bainuetxeetan.

Programa hau da Gizarte Segurantzako erretiro edo ezintasun pentsiodunendako edo alargunentzako pentsioa zein beste pentsioen bat jasotzen duten 60 urteko pertsonen goraokendako.

Parte hartu nahi dutenek ezin dute bainuetxe tratamendua jasotzeko osasun oztoporik izan behar. Gainera, gaixotasun kutsagarriak dituztenek ezin dute parte hartu ezta elkarbizitza normala oztopa dezaketen buru gaixotasun larriak dituztenek.

Bestalde, nork bere kasa moldatzeko gai izan behar du.

Abuztua baino lehen joan nahi izanez gero, urtarrilaren 31 baino

lehen eman behar da izena; irailetik abendura bitartean joateko, berriz, maiatzaren 16a baino lehen.

## KULTURA

# Dantza ikuskizuna gaur Espaloian

I.A.

Tantaka Teatroak eta Kukai Dantza Konpainiak *Otehitzari biraka* dantza ikuskizuna egingo dute gaur, barikua, Espaloian.

1937. gogoaren bidezidorretatik ikuskizunarekin abiatutako lanari jarraituz, erronka berri bati ekin diote. Koprodukzioan egindako bigarren ikuskizuna da eta Jorge Oteitza du oinarri. "Dantza, musika, poesia, bideoa... izango ditu ikuskizunak. Baina, batez ere, Jorge Oteitzaren hitzak eta espiritua", dio ikuskizunaren zuzendari Mireia Gabilondok.

Gidoia Mireia Gabilondok berak gertatu du; musikaz Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal

eta Rafa Rueda arduratu dira; eta taula gainean Kukai taldeko dantzariak jardungo dute Jon Maiak gertatutako koreografia eszenaratzen

Emanaldia 22:30ean hasiko da eta sarrerak 12 euro balio du; bazkideendako 10 euro.

### ZINEMA MUSIKATUA ETA ANTZERKIA

Datozen asteburuetarako ere hainbat ekintza iragarri dituzte Espaloikoek.

Hurrengo barikuan, hilaren 27an, zinema emanaldi musikatu izango da: Buster Keatonen *The General* filma Medin Peironen pianoaz lagunduta. Bestalde, Yllana taldeak *Olimplaf* lana ekarriko du otsailaren 3an.



Jon Mayaren koreografia eramango dute taulara.

**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



**RECYDE, S.A.**  
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 80 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95  
ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949



# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 20a / 34. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

## ELKARRIZKETA

ROCIO CURIEL/URTARRILEAN HASI DA OÑATIKO KZGUNEAN

### “Interneten ibili gura dutenei sarritan gogorarazi behar izaten diet pasahitza”

OIHANA ELORTZA

Rocio Curiel legazpiarra da KZguneko arduradun berria. Urtarrilean hasi da lan berrian, eta pozik dago. Jende asko joaten ei da KZgunera, ikastaroetara zein Interneten nabigatzera. Jendea ezagutzen ari da orain.

**Ongi etorri! Zer moduz hartu zaituzte Oñatin?**

Oso gustura nago. Mediateka zerbitzua gela berean dago eta sartu-irten handia dago une oro. Oraindik oso jende gutxi ezagutzen dut, baina ari naiz poliki-poliki herritarrak ezagutzen.

**Zertara etortzen da jendea?**

Ikastaroetara batzuk eta Interneten murgiltzera beste batzuk.

**Zerk ezberdintzen ditu?**

Adinak, agian. Gazteak, eta baita zenbait erretiratu ere, Interneten nabigatzera datoz gehienbat. Ikastaroetan parte hartzen dutenak, berriz, 40 urtetik gorakoak dira gehienak. Gainera, hainbat arlori zuzendutako ikastaroak egoten dira.

**Doan dira zerbitzu guztiak?**

Bai.



**Dena da libre nabigazio gelan? Badago mugarik?**

Denborak jartzen du muga. Filmak edo musika jaisteak, adibidez,

denbora luzea eskatzen du, eta hori ezin da egin. Bestalde, jende asko baldin badago ordenagailua erabiltzeko zain, denbora

## Otsailerako ikastaroak

- Interneten hasteko: web orrietan sartu eta informazioa bilatu, posta elektronikoa...
- IT txartelak ateratzeko probak
- Hainbat mintegi: aurrezki kutzarekin lan egiten ikastea, MSN, etxetik nola erosi

neurtu egin behar izaten dugu, denek erabil ahal izateko.

**Bilatutako informazioa inprimatu egin daiteke?**

Bai; ez 200 orri, baina zentzuzko kopurua baldin bada, bai.

**Zein da Internet erabiltzen dutenen arazorik handiena?**

Pasahitza ahaztu egiten zaie. Dagoeneko badakite ordenagailua erabiltzen, eta ez dute aparatuko arazorik.

**Ikastarotara ere joaten da jendea?**

Askok. Otsaileko ikastaroetarako ere apuntatuta dago jendea.

## LABUR

### “Todos nacemos vascos” antzezlanaren otsailean dator

Otsailaren 24an dator Santa Anara *Todos nacemos vascos* antzezlanaren Oscar Terol aktore eta gidoigile ezagunak izen bereko liburu bat argitaratu zuen *Vaya semana!* programan oinarrituta. Bada, Glu Glu antzerki taldeak antzezlan bihurtu du liburu. Umortziko antzezlanaren *Todos nacemos vascos*, eta sarrerak salgai daude kultura etxean: 15 euro balio du aurretik eta gero.

Bestalde, gaur, egubakoitza, *Ay Manolo* eskainiko dute Santa Anan 22:30ean.

### Kontzertua eta ikastaroak Gaztelekuan

Bi taldek joko dute zapatuan Gaztelekuan: Gasteizko Obligaciones eta Elorriko Dinties taldeek. Kontzertua 23:00etan hasiko da eta sarrerak bost euro balio du.

Bestalde, hainbat ikastaro antolatuko dituzte Gaztelekuan datorren hilerako. Larrugintza, perkusio eta dantza afrikarrak ikasteko ikastaro eta tailerrak antolatuko dituzte. Ikastaro horiek guztiak otsaileko asteburu ezberdinetan egingo dituzte baina izena emateko epea zabalik dago.

### Toti Martinez de Lezea idazlea Herri Eskolara dator

Toti Martinez de Lezea idazlea hitzaldia egingo du datorren eguaztenean, urtarrilaren 25ean, Errekalde Herri Eskolan. Totik, *Euskal Herriko historiari begirada bat* bosteko dio 18:00etatik aurrera eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Toti Martinez de Lezea idazlea Gasteizen jaio zen eta Larrabetzun bizi da egun. Euskal Herriko historia jasotzen duen hainbat liburu argitaratu ditu. Sarrerak bost euro bakoitza eta bano gehiago jaso du.

## MARTITZENEAN MAHAI-INGURUA EGINGO DUTE KULTURA ETXEAN

### Ikasleekin hitz egingo du mugikortasun foroak

O.E.

Bizikleta eta garraio publikoaren erabiltzeko sentsibilizatu gura dute herritarrak mugikortasun foroak. Datorren astean, herriko ikastetxeetara joango dira ikasleekin gai horretaz berba egitea.

Bederatzi talde osatu dituzte DBHko ziklo bakoitzeko lehen kurtsoko ikasleekin, eta bi lagun

joango dira hitz egitera: Rafael Kortabarria foroak kidea eta Ander Irazusta, mugikortasun gaietan aditua eta aholkularia. Astelehenean eguaztenean egingo dituzte hitzaldiak herriko hiru ikastetxeetan. Bestalde, martitzenean mahai-ingurua egingo dute kultura etxean, 19:00etan. Foroko, Aldundiko eta Udaleko ordezkariak hitz egingo dute.



Mugikortasunari buruzko mahai-ingurua zabala da eta guztiak daude gonbidatuta.




# UGARTE

## AROTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorreetan
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak




**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943.03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04



**ione moñux**  
fisioterapia zentrua

masaje terapeutikoa / kirol masajea  
osteopatia  
eskuz eginiko drainatze linfatikoa  
bendaje funtzionalak  
elektroterapia  
errehabilitazioa



burdiñate, 2  
bergara  
tel: 943 76 21 31







**PROFESIONAL**  
*liberalen*  
**GIDA**

**PROKURADOREAK**

● **JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA** ●  
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).  
943 45 27 26 / 656 41 55 49

**AHOLKULARITZA**

**AIERDI AHOLKULARITZA**  
Artekalea 1. 943 76 03 50

**TBG AHOLKULARITZA**  
Matxiategi 36. 943 76 90 83

**ABOKATUAK**

**RAFAEL ARANBURU**  
Irizar 5. 943 76 10 81

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
Irizar 5. 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**  
Irizar 2. 943 76 03 35

**ARKITEKTU TEKNIKOAK**

● **JESUS LASKURAIN PEREZ** ●  
Zurradero 4. 943 76 53 53